

<b>ahuldade</b> 'moteltasuna, makaltasuna'	«Sumatzen zuen bere arrazonamenduaren ahuldadea, eta bazekien Pauloren aita ere iritzi horretakoa zela.»
<b>aide muxinak</b> 'aire bihurriak'	«Leioha zabalik zegoen eta atea ere bai; bien artean sortzen zen aire muzinak eragin egiten zien lurreko zinta pusketei.»
<b>aintzat hartu</b> 'kontutan hartu'	«Baina aldaketa haiek aintzat hartu izan ez balitu bezala ihar dun zuen bai aurreneko egun hartan eta bai udarak ekarri zituen beste gutzietan ere.»
<b>aitzina</b> 'aurrera'	«Burua arrunt handia zuen mutila aitzina zetorren neska batekin; neskak anitz eragiten zien eskuei mintzatzerakoan.»
<b>akort izan</b> 'ados egon'	«Akort naiz eritzi horrekin, etorri zitzaidan gogora.»
<b>amore eman</b> 'toleratu'	«Eskuei anitz eragiten zien neskak amore eman zion proposamenduari.»
<b>antzeman</b> 'igarri, ohartu'	«...arteana segi zitezkeen begiz umeen korrikak plazan; artean antzeman zitezkeen eguzkiaren zantzuak gainaldez gainalde...»
<b>aran arboladi</b> 'okaran arboladia'	«Zantzuetakoa batek bete-betea ematen zion kanposantuaren aldameneko aran arboladiari, eta argitasun hura zela eta, kolore are eta horiagoa hartzen zuten...»
<b>are eta ahulago</b> 'oraindik ahulago'	«Handik piska batera, doinua are eta ahulago iristen zela ikusiz, hola esan nien lagunei...»
<b>arras</b> 'guztiz, zeharo'	«Festa aitzineko egunetan neska zatarrak arras urduri ibili zen, zeren bere lagunak buru handiarentzat brodatuak zinta hura eskuetaratzea gutzizatzen
<b>arrunt molde geldoan</b> 'oso astiro'	«...amurruin batengana nindoan, eta joan ere sugeen artean usantza den bezala nindoan, zuhurki eta arrunt molde geldoan ibiliz...»
<b>atzera</b> 'berriro, ostera'	«Eguerdi aldera joan-etorri bat egiten zuen etxera (...) gero zerrategira jaisten zen atzera bertan arratsalde gutzia pasatzeko.»
<b>baizen</b> 'baizik, baino'	«Ez naiz Mintzoaren morroia baizen, eta erran nion ongi neritzola, izan zedila hala berak hala izatea nahi bazuen...»
<b>beha</b> 'adi egon, begiratu'	«Beha gelditu nintzaion eta bera dantzan hasi zen; gorputza luzatuz burua kraskatu nion.»
<b>berori</b> 'zu' (errespetuko tratamendua)	«Horregatik etorri naiz berorregana, zerbait argituko didalakoa.»
<b>bide</b> 'antza denez, aidanez'	«Bere anaiak kendu nahi bide zion iturri ttiki hura izter artean zanpatuz...»
<b>bildu</b> 'ekarri'	«—Hire esku zegok Paulo. Hik biltzen baduk zentzura, ez duk ezer gertatuko.»
<b>burrundara</b> 'zarata, txistua'	«...urak egindako burrundara hura bihotzean sartu eta hitz bihurtu izan balitz bezala.»
<b>danbateko</b> 'ateari golpea eman'	«Txabolaren ateari danbateko bat emanez, Paulok Obabako plazaren bidea hartu zuen.»
<b>dardarizo</b> 'dardara'	«Berak ez du kulparik, dardarizoak du kulpa, pentsatu genuen guk.»
<b>deliberatu</b> 'erabaki, ebatzi'	«—Nola ez da betikoa egiten ari?—pentsatu nuen. Eta arratsaren ordu hartan katagorriekin jostatzea zegokiola deliberatu nuen.»
<b>deslai</b> 'galdua, errebelatua'	«Ez nintzen iturriraino hurbilduriko zakur deslaien ikara; areago, ikusia izatea zen nire desira, eta beraiekin gudu egitea.»
<b>diagu / dinagu:</b> 'alokutiboa: dugu. Bestela:	«Berdin dun (da), Teresa. Honi ez zion (dio) azukreak kalterik egingo. Eman egion (egiozu) hirea eta nik egindakoa bion artean jango dinagu.»
<b>diat / dinat</b> 'alokutiboa: dut. Bestela dizut'	«—Ez diat ezer ere, baina pentsatzen nagok aurki lur horren azpira joan beharrean nagoela hemeretzi urterekin...»

**dik / din**

'alokutiboa: du. Bestela: dizu'

«Etxea norik zaindua izango duk, zerrategia norik zaindua izango duk, baina Danielek hi edukiko hau ala ez dik inor edukiko.»

**diosala**

'agurra'

«Txirrinaren hotsak erne ziren orduan, eta neska jendea gure ondotik pasa zen diosala bromazkoak eginez.»

**dituk / ditun**

'alokutiboa: dira. Bestela:

«—Zuen lapurretak ez dituk benetako lapurretak —hasi zen nekazaria joan eta gero— nik bazekiat hori.»

**dizkin / dizkik**

'alokutiboa: ditu. Bestela:

«Hamazazpi urte dizkin, baina zirri egiteko hogeitazazpi balitu bezala!»

**duk / dun**

'alokutiboa: da. Bestela: duzu'

«Hori ezin dun izan -eta plazaren erdian gelditu zen.»

**ediren**

'aurkitu, idoro, topatu'

«Pentsatu zuen bere haurtzaro hartan anitz arrazoi ediren ahal zituela bozkarioz egoteko...»

**egokitu**

'suertatu, gertatu'

«...ibai tikiaren alboko zerrategira joan zen bertan begizulodunarekin egokituz.»

**erdu**

'heldu, etorri'

«...bakarrik izen solteak jaso ahal izan nituen, Paulo, Daniel, eta gaizki erdu zitzaizkidan bertze hainbat hitz.»

**eredura**

'arabera'

«Geroago, udara aurreratuz zihoan eredura, sagar pipita haiek ezkutatzuz joan ziren ibai tikiaren uretatik...»

**ernetu**

'sortu, jaio'

«Bada apo handi bat gauetan erne egoten dena eta begi zabalik dauden txoriak harrapatzen dituen.»

**erpin**

'tontor, punta'

«Ibai tikiari segitu nion, behealderantz, haltza zaharren erpinetatik gehiegi apartatzera ausartu gabe...»

**etsi**

'adore gabe gelditu desesperatu'

«Paulo begi zabalik gelditzen zen ohean sartu orduko, eta etsi ezinez pasatzen zuen gauaren parte gehiena.»

**ezeztatu**

'suntsitu, desagertarazi'

«Baina ezin nezakeen Pauloren etxeko pareta ezeztatu eta bere barnealdera kirikarik egin, eta ezinezkoa zitzaidan...»

**ezten**

'akuilua, ziria'

«Bada, gero hau dena plazan jartzen duk (...) eta gazte jendeak hartu bizikleta eta hartu eztena eta zinta bere txokotik ateratzen saiatzen duk.»

**gailendu**

'irabazi, gehiago egin'

«Ondorengo isilunean areagotu egin zen gelak zeukan usia; argizariarenari izerdi ustelduarena gailendu zitzaion.»

**gaituk / gaitun**

'alokutiboa: gara. Bestela:

«—Denok ederrak gaitun Jainkoarentzat, Carmen. Hi ere ederra izango haiz bere aurrean gertatzen haizenean.»

**gandu**

'lainoa, lanbroa, bisutsa'

«...eta lurraren, arnasak -egunez hartutako berotasuna isuriz -ganduaz kutsatzen zuen airea...»

**garden**

'argi, garbia'

«Hitzak gero eta gardenkiago zetozenez, linburtu egin nintzen ibaian gora, amurra in multzokada lo ikusia nuen alderat...»

**gomentano**

'komentariotxo'

«—Hire lagun hori ez dun batere itsusia, eh Carmen?... hori izan dun bere gomentanoa.»

**hain ... ezen ... bait**

'tan ... que ...'

«...hain atsegin haundiz egon ere, ezen bertatik mugi erazteko eta urrun erazteko Mintzoaren beraren aginduak ere gutti izanen zirela iruditzen

**hala nola**

'esaterako, adibidez'

«...akatsik gabe bateratzen baitziren beren iritziak, hala nola itsasoaren zabaltasunari buruzkoak edo etxeetako pareta zuri eta teilatu gorriek

**haltza**

'arbola mota. Aliso'

«...haltza zaharren adar artean ibiliz, edo arropaz aldatzen ziren txabolaraino hegal eginez.»

**hasperen**

'arnasa, hatsa, zinkurina'

«Gero bere hasperena ekarri zuen, urak.»

**hau**

'zaitu'

«Zergatik ikaratzen hau neska harro horrek, pentsatu nuen Paulori begira. haut: zaitut...»

<b>herrestan</b> 'narras, dandarrez'	«Nekatua nengoen hainbertze herrestan ibiltzeaz, eta une hartan gurutzatzen ari ginen ibai ttikian gelditzea erabaki nuen.»
<b>higitu</b> 'mugitu'	«—Bai?—zegoen lekutik higitu gabe.»
<b>hortxe nonbait</b> 'hortxe-hortxe'	«Berarekin gustatuta egotea Obabatik Ameriketetara joaten ziren mutiletako batekin gustatuta egotea bezalaxe zen, edo hortxe nonbait.»
<b>huake</b> 'alokutiboa denean litzateke'	«Urdina edo jarri ezker baten bat nahastu egingo huake, badakik urdin batetik bestera alde gutxi dagoela.»
<b>ihizi</b> 'ehizean harrapatutakoa'	«...Mintzoa entzun bainuen segidan, eta hala erran baitzidan, alegia bera izan zela alferrikaldu zidana, eta nire premian zegoelako deitzen zidala.»
<b>ilki</b> 'atera, irten'	«Eta Mintzoak ur sakonetatik ur arinetarat ilkitzeko erran zidan, eta egoteko ibai ingurutako orori beha, eta entzuteko ibaiaren urak zekarren hots oro...»
<b>inuzent</b> 'inoxo, gizajoa'	«...artean inuzent, mizpira arbolatik sekula atera gabeko txoria nintzela.»
<b>irabazki</b> 'iragazi'	«Gortinetan irabazki eta gero, eguzki haren argia arrosa kolorekoa bihurtzen zen pasiluan...»
<b>jakinaren gainean</b> 'jakitun egon, berri izan'	«Lehen ere ibilia dun nesken atzetik, jakinaren gainean egongo haiz noski!»
<b>jauzika</b> 'saltoka'	«...mutilaren zalaparta sentitu nuen pasilloan, eta eskaileretan behera jauzika zihoan zintzarriaren hotsa...»
<b>jostun</b> 'joskile, josten duena'	«—Sar zaitez, bai. Hemen txokoa gordeta daukagu zure anaia-esan zion jostun maistrak leihoaren ezkerretara zegoen izkina seinatuz.»
<b>jostundegi</b> 'josteko lekua'	«Hemendik piska batera jostundegia itxi eta hemengo jende guztia gozogintza ikastera joango da.»
<b>karkara</b> 'barre santxoa, barre handia'	«Paulori ia ezkututzeraino kizkurtzen zitzaizkion begiak; Danieli karkara moduko bat ermetzen zitzaion bularretik.»
<b>kasikan</b> 'ia-ia'	«...neska hark ezin zuen Paulo burutik kendu, eta hori urtebete lehenagotik, mutil hura, kasikan ezezaguna izatetik, leku guztietakoa izatera pasa
<b>kilima</b> 'kilikili'	«Eta kilimakoak eginez bere gordelekutik atera erazi zuenean, barre egin zuten biek.»
<b>kirikarik egin</b> 'inor konturatu gabe begiratu'	«Baina ezin nezakeen Pauloren etxeko pareta ezeztatu eta bere barnealdera kirikarik egin, eta ezinezkoa zitzaidan...»
<b>lahar</b> 'sasia, naharra'	«Begiratu nion lurrari hango lahar eta osinei, eta behin adiskide batek kontatutako ipuin bat gogoratu zitzaidan.»
<b>lain</b> 'beste, adina'	«Eta iduri izan zuen (...) birika haiek oso haize gutxi bidaltzen ziotela eztarriraino, bi hitz haiek doi-doi osatzeko lain.»
<b>lanturu</b> 'negar, kexu, erosta'	«Arestian ñimiñoak bezala, orain erraldoiak ziruditen bular hartako birikek; garrasiak zakurren lanturu gainetik zabaldu ziren etxean.»
<b>larderiatsu</b> 'errespetua eragiten duena'	«Paulok oilo loka larderiatsu baten lepo aurpegiak jarri zizkion.»
<b>lerde</b> 'adurra, listu, txistua'	«Maitte maitte egiten ari zitzaiolako edo, mutil handi hura lerdea zeriola jarri zen.»
<b>lerratu</b> 'irristatu, limurtu, sartu'	«Baina ez zen ito. Asko gautu eta gero bueltatu zen etxera, eta atzeko atetik sartuz lerratu zen bere gelaraino.»
<b>lika</b> 'lñiska, lekeda, liga'	«—Apoak harrapatu du bere mihi likarekin.»
<b>linburtu (limurtu)</b> 'irristatu, narraz joan'	«Hitzak gero eta gardenkiago zetozenez, linburtu egin nintzen ibaian gora, amurra multzokada lo ikusia nuen alderat...»

**malkar**

'aldats handia, amildegia'

«...zerrategiaren gain gainean zegoen mendixka bat seinalatu zigun, esanez malkar hartatik gora abiatuz gero, doinua egundoko indarrez entzuten zela.»

**malko zeriola**

'negarrez, anpuluak jausten'

«Eskaileretan estropozu eginez, malko zeriola algarengatik, Danielek bere gelarako bidea hartu zuen.»

**Maria zena**

'Maria izandakoa, hildakoa'

«Ene Maria zenak... duda egiten zuen, aitorten hura egin ez egin –Maria zenak esaten zuen Danielen antzeko beste mutil bat ezagutu zuela gaztetan...»

**menera jar**

'menderatu, emnpean izan'

«...hurrengo aldi batez txoriren bat edo saguren bat nire mi miztoaren menera jar lezan galdutako amuarrain haren ordainetan...»

**mesfidantza**

'susmo txarra'

«—Beltza da orduan eraztuna? -begiak kizkurtu zi tuen, mesfidantzaz.»

**minbera**

'sentibera, kexatia'

«Holaxe sentitzen nuen Obabako lurra Pauloren zai egoten nintzen bitartean: minbera eta kexati.»

**mintzo**

'barneko solaskidea'

«Mintzoari kexatu nintzaion, hots hura kentzeko mesedez, edo emateko niri mutil hari laguntzeko dohain hobegoak.»

**mudatu**

'aldatu'

«Orain ere holaxe hentorrenan, eta mudatu egin dun ni ikusi orduko. Hara hor hire bi buruak.»

**muin egin**

'musu eman'

«—Hi al haiz?—nekazariak muin egin zion eskuan— Zer dugu?»

**nagi**

'alferra'

«Ordea trebe eta antzatsu da Mintzoa, eta badaki noiz diren bere morroiak nagi, eta noiz den erdua sariak banatzeko tenorea.»

**nauk / naun**

'alokutiboa: naiz. Bestela: nauzu'

«...Ez dezaala pentsa hire mesprezioarekin ahaztuta nagoenik, baina lagundu egingo diat. Azken azkenean familiakoa nauk.»

**nekoso**

'nekagarri

«Eskerrak oroitzapen horretan murgildu den, pentsatu nuen. Oso nekosoia egiten zitzaidan pentsamenduari harantz eta honantz segitzea.»

**neritzon (iritzi)**

'iruditzen zitzaidan

«—Hustu zaitezte –zuzendu nintzaion– bihar puztuko zarete ostera. Hori neritzon hurrengo egunean ere bero handia egingo zuela.»

**niagok / niagon (egon)**

'nago.

«—Zer dihoa ondo? Asper-asper eginda niagon Danielekin! Hitz egiterakoan txistu zipritzinak botatzen zizkidan...»

**nihoak (joan)**

'noa

«Hamabost urte besterik ez dituk eta pena handia ematen zidak hire bizkarretara holako karga handia botatzeak, baina ni hiltzera nihoak...»

**ninduan**

'alokutiboa: nintzen. Bestela: ninduzun'

«Iguzkia berotasuna ematen zion nire odolari, eta indarrez betetzen ninduan, eta ausardiaz. Ez nintzen iturriraino hurbilduriko zakur deslaiden ikara...»

**nini negar**

'begiko malkoa, anpulu'

«...soinu urrun bat, etxe bateko azken gelan negarrez legokeen nini baten negarra bezalakoa.»

**nozitu**

'jasan, pairatu, eraman'

«Bere anaiaren pisu guztia gainean nozitud, Paulo argi hari begira gelditu zen.»

**obeditu**

'esana egin'

«—Daniel! Obeditu egiozu zure anaiari! -esan zuen jostun maistrak, eta beste besotik heldu zion.»

**ohostu (ostu)**

'lapurtu, ebatsi'

«...esaten zinan nire aitak zerrategia ostu nahi ziola, eta pentsa ezan, familiakoak hitunan.»

**orin**

'oresta, lunarra'

«—Eta bietan al daukat mantxa?-desafiatu zuen berak zakar, jaiotzatik, belarritik masaleraino, zeukan orin izugarria seinalatuz.»

**osin**

'putzu, leizea'

«Begiratu nion lurrari hango lahar eta osinei, eta behin adiskide batek kontatutako ipuin bat gogoratu zitzaidan...»

**ostro**

'hostoa, orbela'


«Brisarak haltza zugaizten ostroak igurtzitzen zituen. Apoek txistu egiten zuten. Zakurrek zaunka egiten zieten itzalei.»

**otu**

'bururatu'

«Eta hori otu zitzaidanean asko poztu nintzen, zerengatik sentimendu hura berak buruan zeukan hotsa ezeztatzeko erremedio bat iruditu baitzitzaidan.»

<b>peskizan</b> 'pentzuan, menpean'	«—Ordutik zetorkion bere izateko postura hori, horregatik zebilen beti bere anaiaren peskizan.»
<b>pitzatu</b> 'urratu, hautsi'	«—Niretzako, Paulo?—pozak eztarria pitzatzen zion.»
<b>talaian egon</b> 'adi egon'	«Jostundegi guztia talaian zegoen. Neska artetik pasaz Paulok beso batetik heldu zion.»
<b>tema</b> 'seta'	«Izan ere, Paulo bere anaiaren jokaera konprenitzen saiatzen zen gauero. Beste gairik gabe, zaurian sator baten temarekin barreneratuz.»
<b>uhuri</b> 'ulu, aiuri'	«Eta igotzea burutu eta Paulogana bideratzerakoan zakurren uhuriak sentitu nituen. Uhuria haiek lanturu bat osatzen zuten Obabako airean.»
<b>xelebre</b> 'bitxia, barregarria'	«—Bada, aran arboladi horri gauza xelebre bat gertatzen zaio, jauna. Begiratzen diot San Juan bezperan eta alez gainezka ikusten dut.»
<b>xuxurlatu</b> 'isilean esan'	«—Zakurrek –xuxurlatu zion– zakurrek nahasten dute.»
<b>zaidak / zaidan</b> 'zait alokutiboa'	«—Eraztunik ez zeukanat, oraintxe gogoratu zaidan!»
<b>zakarki</b> 'modu txarrean'	«Garrasi eginez besoak libratu zituen, zakarki, eta eusten zienei bultza eginez.»
<b>zamatzaileago</b> 'astunago'	«Oraingoa, ordea, behin ere baino zamatzaileagoa iruditu zitzaidan; paretak urritzen zituela, airea loditzen zuela...»
<b>zanpatu</b> 'zapaldu'	«Makina bat belar zanpatuko du horrek, pentsatu nuen.»
<b>zebilek / zebilen</b> 'dabil alokutiboa'	«Deskuidatzen baldin bahaiz, gu baino gutxiago haiz. Asko eta asko esanka zebilek hortik, harro bat besterik ez haizela...»
<b>zegok / zegon</b> 'dago alokutiboa'	«—Ondo zegon, Teresa, joan egingo naun. Baina egin duena ez zegon egiterik. Ohitura txarrak hartzen baditu, auskalo nola bukatuko duen honek.»
<b>zekiat / zekinat</b> 'dakik alokutiboa'	«—Bazekinat, Carmen, bazekinat. Baina orain joan hadi plazara, Daniel isildu beharra zeukanat –eta Danieli maitte maitte eginez.»
<b>zerrategi</b> 'zura lantzen den tokia'	«Zerrategian hamar bat gizonek egur oholak kargatzen zituzten gurditan, eta berak Pauloren aitarekin hitz egiten zuen idiak lotuta zeuden inguruan.»
<b>zeukat / zeukanat</b> 'daukat alokutiboa'	«—Bazekinat, Carmen, bazekinat. Baina orain joan hadi plazara, Daniel isildu beharra zeukanat –eta Danieli maitte maitte eginez.»
<b>zian / zinan</b> 'zuen alokutiboa'	«Eta niri bakarrik ez, bestela galde egion erretoreari. Erretoreak mezatan ere jotzeko moduan egiten duela esan zinan behin.»
<b>zidak / zidan</b> 'dit alokutiboa denean'	«Bestela etzekit noraino gaiztotuko den arazo hau. Teresaren amak etxean lotuta egon beharko lukeela esan zidak...»
<b>zidanate</b> 'didate alokutiboa'	«—Belaunak dar-dar egiten zidanate –erran zuen eskuei eragiten zienak. Soineko txuri batekin beztiturik zegoen.»
<b>zihoazek</b> 'doaz alokutiboa'	«—Aitari azken igurtziak ematera zihoazek, Daniel.»
<b>zinbuluka</b> 'zabuka, gora eta behera'	«Zinbuluka ikusten nituen korrientetan, edo jiraka zurrunbilotan, edo hondoratuko naiz ez naiz hondoratuko aurreratuz uraren bildu lekuetan...»
<b>zintzarri</b> 'arrana, joarea'	«Susmo hura burutik kentzera ahalegina egiten ari nintzela zintzarri baten hotsak Obabako bi auzo nagusiak batzen zituen bidera errepara erazi zidan.»
<b>ziok / zion</b> 'dio alokutiboa'	«—Ez ziok ardura, oraindik ttikia haiz gauza horiek konprenitzeko.»
<b>zirrara</b> 'hotzikara, emozioa'	«...eta puntu hartan zirrara bátek kurritu zuen nire bizkarrezur guztia, eta isatsa astindu nuen eta urari eragin nion gozoz bestera...»



**ziruditen**  
'dirudite iraganean'

«Ur azpitik izarrek mugikor ziruditen. Bihar ere bero egingen du, etorri zitzaidan gogora.»